

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek 214.417 bisita erregistratu dituzte 2018an

Gainera, Erregistroan inskribatutako hamahiru zentroek antolatu dituzten hedapen- eta prestakuntza-jardueretan 70.000 pertsona inguruk parte hartu du.

Astelehena, 2019.eko otsailak 11

Nafarroako Museo eta Bilduma Museografiko Iraunkorren inguruko Foru Legeak aitortutako Nafarroako hamahiru museo ekipamenduek 214.417 [bisita](#) erregistratu dituzte haien erakusketetan, eta antolatu dituzten hedapen- eta prestakuntza-jardueretan 69.999 pertsonak parte hartu du.

Datu horiek erakusten digute bisita kopurua nabarmen igo dela (% 50,29) 2017ko 142.667 bisitekin alderatuta. Igoera horren funtseko arrazoiak bi dira: batetik, apiriletik urrira egin zen Museatu! eta bidaiatu pasaportearen baterako hedapen-kanpaina, eta, bestetik, Nafarroako Unibertsitate Museora bisitak, 2017ko azken hiruhilekoan soilik kontabilizatu zirenak, Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan sartzearekin batera. Gauza bera gertatzen da Henri Lenaerts Zentroarekin eta Artetan dagoen Iruñeko Erresumaren Museo Etnografikoarekin, bisitak 2017an hirugarren eta laugarren hiruhilekoan bakarrik erregistratu baitzituzten. Datu negatiboen kapituluan, aipatu behar da obrak direla-eta Gustavo de Maeztu Museoa itxita dagoela ekainetik, eta horrek bisiten kopuruan ere eragin duela.

Foru museoentzat urte berezia

Foru Administrazioaren jabetzako bi museoak, Nafarroako Museoak eta Karlismoaren Museoak hain zuzen, erakusketa iraunkorrak berritzeko proiektuak gauzatu dituzte 2018an, eta, horretarako, beren instalazioak osorik edo partzialki itxi behar izan dituzte urte osoan zehar, egoera horrek abenduan nabarmen eragin duelarik. Horregatik, urte berezia izan da beraientzat.

Bisitariaren profila

2018ko bisitariaren profila honakoa izan da: Nafarroan bizitokia duen bisitaria (% 54,63), bakarkako bisitak egiten dituena (% 74,01), goizez (% 66,81) eta doako sarrerarekin (% 72,76). Bisita gehienak martxoan, apirilean eta maiatzean erregistratu dira, Aste Santuarekin eta Museatu! eta bidaiatu kanpainaren hasierarekin bat etorri.

Foru-erkidegotik datozen bisitariak erdia baino gehiago dira, eta % 29,52 turista nazionalak dira. Publiko atzerritarren kasuan, goranzko joera mantentzen da eta dagoeneko % 15,85era iritsi da, 2017an baino ia

4 puntu gehiagorekin.

Sistema estatistikoa

Hamahiru museo-zentroek 2016az geroztik publikoaren datu-bilketarako sistema berdina erabiltzen dute, bereizi egiten dituenak, batetik, bisitaria —zentro baten behin-behineko erakusketa eta/edo erakusketa iraunkorraren museo-funtsak bisitatzen dituen publikoa— eta, bestetik, erabiltzailea —zentroak eskainitako beste edozein zerbitzu eskuratzen duen publikoa, erakusketa iraunkorra eta/edo behin-behinekoaz kanpo—. Bisita bakoitzeko kontaktak museora sartzen den pertsona bakoitzak zentroak eskainitako erakusketei emandako erabilera islatzen du. Erabilera hori bakarra izan daiteke, zentroek erakusketa iraunkor bakarria dutenean, edo askotarikoa, zentroak behin-behineko erakusketak antolatzen dituzenean.

2019an, Museoen Zerbitzuak publikoaren datu-bilketarako sistemari bisitariaren adierazlea gehitu dio. Adierazle horrek zentrori doazen bisitari guztiak zenbatzen ditu, bisita berean erakusketa iraunkorrera eta/edo behin-behineko erakusketara doazenak bereizi gabe.

Museoen pasaporteak

Azkenik, gogoratu behar da 2018an banatutako museo pasaporteak eskura dutenek 13 zentroak bisitatzen jarrai dezaketela aurten ere, eta zigiluak lortzen, bisitaren oroigarri gisa. Zentro bakoitzaren web-orria begiratzea gomendatzen da, bisita antolatu aurretik.